

Aiko taldeak Pirinioetako musika erreperitorioan eta soinueta oinarritutako disko berria, zortzigarrena, aurkeztu zuen atzo, Bilbon. Ho-

gei kanta propioak osatzen dute «Bilgua» lana, tuntunak, biolinak eta danborrak ohiko talde instrumentala gorpuzten dutelarik.

«Bilgua», Aiko taldearen eskutik plazak dantzan jartzeko deia

Alvaro HILARIO | BILBO

Pirinioetako soinuak ditugu Aiko taldearen «Bilgua (Pirineotako magaletan dantza)» (Elkar) disko berriaren oinarrian. Horrela, lana osatzen duten hogeiki kanten artean joan den mendearen hasieran Luzaideko erromerietan jotzen ziren dantza-jauziak, jotak, balsak, mazurkak eta txotisak daude.

Sabin Bikandi, Patxi Laborda, Asier Garcia eta Ainara Artetxe izan ziren Aikoren azken lana aurkezten. Beraien esanetan, lan berria «erdi jolasean» sortutako proiektua da eta, Pirinioetako soinuak abiapuntu, «dantza egiteko gonbita» izan nahi duena.

Erromeriak eta emanaldiak

Patxi Labordak azaldu zuen bezala, J. Bentaberriren orkestrak Luzaideko erromerietan erabiltzen zuen egitura bera baliatu dute diskoa egiteko; hau da, dantza jauziekin hasi eta bukatu, tartean elkarrekin dantza egitekoak (balsak, mazurkak, jotak edota txotisak) jotzen zizuztela.

Ohiko maneran egindako hogeiki pieza berri hauek grabatzeko nahiz jotzeko aukeratutako formazio mota (tuntuna, danborra eta biolinak osaturikoa) Pirinioen magalean erabiltzen zen berbera da.

Betiko soinuak ez ezik, ranxera eta habanera bana ere sartu dituzte diskoan, «gurea bezala sentitzen dugun hori



Umorea eta musika batuta egin zuten aurkezpena Aiko taldekoek. Jon HERNANZ | ARGAZKI PRESS

geureganatzen baitugu», azaldu zuen Bordak berak.

«Bilgua» laneko kanten bideoak Aikoren webgunean (www.aikotaldea.com), Facebooken eta Youtuben eskegi dituzte. Grabazioak Otxandion egin zuten parranda batean egin ziren, kamera bakar bat erabiliz.

Lana girotzeko eginiko bideoak dira, beren esanetan, «asmo pedagogikorik» ez dutenak.

Hala, Aiko taldea prest dago abian jarritako dantzarako gonbit hau euskal plazetara eroateko. Hasteko, ekainaren 1ean, 19.00etan, Markinan izango dira. Hurrengo egunean beste

aurkezpen bat egingo dute Ur-bian.

Ekainaren 8an, berriz, saio bikoitza izango du musika taldeak: lehendabizikoa, 13.00etan, Esozian (Soraluzen) izango da eta bigarrenkoa, Donostiako Konstituzio plazan, 20.30etan.

Gorka Benítez será, esta noche, profeta en la Bilbaina Jazz Club

GARA | BILBO

La XXII edición del ciclo Auditorio, organizado por la Bilbaina Jazz Club, contará esta noche con un invitado de lujo, el saxofonista bilbotarra Gorka Benítez. Será a las 22.00 en la sala La Bodega. Las entradas son todas de 12 euros.

Afincado hace casi dos décadas en Barcelona, Gorka Benítez es uno de los saxofonistas más requeridos por todo tipo de creadores y probablemente nuestro músico más internacional dentro de la escena de jazz. Una vez más, tendremos ocasión de apreciar su evolu-

ción como compositor, así como sus cualidades como instrumentista poderoso, versátil y sutil que es.

Su último trabajo, «Volver a Marte», ha sido galardonado como mejor disco de jazz de 2012 por la Asociación de Músicos de Jazz y Música Moderna de Catalunya.

Cuarteto

El cuarteto que lidera Benítez (saxo tenor y flauta) cuenta con Dani Pérez a la guitarra, David Xirgú a la batería y Masa Kamaguchi al contrabajo.

En 2012 presentó disco en el Jazzaldia de Gasteiz.



Benítez vuelve a su ciudad. BJC

Musikaren iraingitzeak



Ritxi AIZPURU

Musika argitaratzailea

Musika modernoak iraingitzea data desberdinak ditu.

Batetik, musikaren industriak diskoei ezartzen die; bestetik, komunikabide eta kalean irauten duten; eta, bukatzeko, jendearen memoria ze luze atxikitzen diren. Diskoek lau bizitza dituzte: berrikuntza denean salneurri gorenean jarri ohi da. Salmentaren indarra ahultzen doan heinean, ertaineko sailera jaitsiko da; gero, katalogo funtsera. Hortik euskarri fisikoaren heriotzara doa. Alerik ez denean geratzen, agortutzat ematen da eta bigarren eskuko salmentara iritsi daiteke eta, kasu batzuetan, izugarri garestitzaera ailegatu ere bai, bildumazaleen monopolioan. Komunikabideetan bi sailkapen leudeke: irratia formula eta irratsaio arruntak. Formulak kantuak biziki ona izan behar du bost hilabetez eusteko zerrendetan. Gehienek aste gutxi bizi izango dute. Irrati arruntetan beti erakar daitezke abesti zaharrek zein berriak. Egun, segituan erantzun dakioko entzule baten kantu jakin baten eskakizunari. Milioika abesti pila daitezkeen diskoteka digitalean, eroso eta arina da aurkitzea desio den abestia entzulea asetzeko. Kale, taberna, jai, txosna eta norberaren bizitzan musika entzun daitezkeen toki horietan guztietan kantuen iraingitzea zein den moden arabera kulunkatzen da. Beste kontu bat da gizartearen memoria zer eta nola geratzen diren kantuak jendearen burmuinean. Herri kantuen iraingitzea ahoz ahoko transmisioak zekarren. Baina abesti zahar haiekin gehiena transmisioetik at geratu da. Klasisikoa deritzan musikak gehiago iraun du pentagramara eramana zelako. Egun, abesti bat entzuteko hamaika modu dira eta norberak horrela iraingaitz bilakatu lezake kantua.